



Feminismoak ekonomia berrasmutzen

Azaroaren 30eko greba feminista orokorrak bide ematen digu ekonomian genero ikuspegiak ekartzeko duen begirada berriaz eta emandako urratsez hausnartzeko. Ekonomia konbentzionalak soilik etekinak lortzeko ahalegina egiten duen bitartean, genero ikuspegiak jendartearen eta planetaren bizitzan ipintzen du arreta nagusia, ekonomia zaharraren funtsak hankaz gora ipinita.

Genero ikerketak eta azterketak oso albokoak izan dira akademian, batez ere ekonomian, zeinean azkenaldian ortodoxiak presentzia indartsua izan duen. Nolanahi ere, haize berria dator akademiara emakumeen indarrak eta ahaleginak hauspotuta. Eta horren adibide argia da aurtengo ekonomia Nobel saria Claudia Goldin genero arrakalaren iker-tzaileak jaso duela. Aipatutako sariak batez ere ortodoxia liberala lehenetsi duen arren genero azterketen bulkadari men egin behar izan dio.

Claudia Goldinen ahalegin nagusia genero arrakala gainditzeko oinarri teoriko eta praktikoen azterketan gauzatu da. Lan merkatuko ikerketen eremuan genero arrakalaren ebidentziak ekarri ditu ikerketara eta eraginkorrak diren politika publikoen neurri egokiak abian jartzeko funtsezkoa izan da bere lana. Besteak beste, 200 urteko datuak erabilita AEBetako genero arrakalaren azterketa egin zuen eta lan merkatuko mitougari hankaz gora bota zituen. Esaterako, hazkunde ekonomikoa eta genero

Jendarteak emakumeekiko zor historikoa du haiek egindako –eta gehienetan ordaindu gabeko– zaintza lanagatik

arrakalaren balizko jaitsieraren arteko erlazioa gezurtatu zuen. Aitzitik, bi mendetan genero arrakalaren hobekuntza gertatu bada bi arrazoi hauengatik izan dela ondorioztatu zuen: hezkuntzaren hobekuntza eta antisorgailua erabiltzeko erraztasuna.

Baina Goldin harago joan da eta kultur aldaketaren premia azpimarratu du. Bere esanetan, enpresa kultura lanpostuan ordu gehiago egiten duenaren sustapenean oinarritzen da. Eta malgutasun falta horrek emakumeak bere lan bizi-tzaren inguruan hartzen dituen erabakietan eragin zuzena duela dio.

Hala ere, berdintasunaren aldeko ekarpenaz harago, ekonomia feminista argi luzeko alternatiba da, ekonomia konbentzionalaren oinarriak eta helburuak zalantzan jartzen dituen neurrian. Jendartearen ongizatea eta bizitza ego-kia dira erdigunean ipintzen dituenak



MIKEL ZUBANO
EKONOMIALARIA

genero ekonomiak eta Barne Produktu Gordinaren neurria eta bere logika merkantilista baztertzen ditu. Zaintza lanak, etxeko lanak, laguntza, pertsonen sostengua... merkatuaren elkartrukeetatik kanpo dauden zereginak bizitzarako funtsezkoak dira, batez ere emakumeek egiten dituzte eta ekonomia ofizialak ez ditu kontuan hartzen. Horregatik, ekonomia feministak dio lan horiek ere kontabilizatu eta merkatuz kanpo dauden emakumeen ekarpena kontuan hartu behar dela.

Ordaindu gabeko lana eta etxeko zein merkatuz kanpoko zerbitzu gisa ekoizten eta elkartrukutzen dena erraldoia eta ikusezina da. Beraz, baldin eta ekonomia harremanak eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak nola eraikitzen diren hobeto ulertu nahi badugu, paradigma berri bat beharrezkoa da. Ildo horretan paradigma feministak ekonomiaren helburua bera berrosatzeko du, etekinak maximizatzeko asmoa alboratu eta berdintasuna, ongizatea eta zaintza erdigunean jartzen ditu.

Jendarte orok zaintzak behar ditu eta eskaintzen ditu, baina gakoa da nolako arreta ipintzen diogun ikuspegi komunitario batetik zaintzari eta nork hornitzen dituen zerbitzu horiek. Jendarteak emakumeekiko zor historikoa du haiek egindako –eta gehienetan ordaindu gabeko– zaintza lanagatik. Erreparazio historikorako urrats garrantzitsua da azaroaren 30ean kaleak bioleta kolorez betetzea. ●